



ONLINE PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA ARABAKO ESKOLETAKO IKASLEEN ARTEAN

**PSIDES IKERKETA TALDEA
(UPV/EHU)**

**Garapenaren psikologia gizarte-
erronka berrien aurrean**

KONEXIO-ONA
Hurtzarroan eta nerabezarroan
harreman osasuntsuak
sustatzeko elkarte

2026ko OTSAILA

NERABEZAROA ETA ONLINE PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA

Azken hamarkadetan, Interneten erabileraren gorakadaren ondorioz, **online pornografiaren ekoizpenak zein kontsumoak gora egin du** (Tarrant, 2016). Gailu digitalen erabileraren kontrol eskasak edo ezak, zein anonimotasunak, pornografiaren kontsumoa gero eta adin txikiagoetan hasia ahalbidetzen dute (Ballester et al., 2020). Gaur egun, adingabe askok —bereziki mutilek— eduki pornografikoa behar adinako heldutasun emozionalik eta afektibitateari nahiz sexualitateari buruzko prestakuntza egokirik izan gabe jasotzen dute. Testuinguru horretan, hainbat autorek adierazi dute **online pornografiaren kontsumoa gero eta ohikoagoa dela haur eta nerabeen artean**, eta horrek ondorio negatiboak izan ditzakeela maila neurobiologikoan, psikologikoan zein sozialean (Bischmann et al., 2017).

Peter eta Valkenburg-ek (2016) egindako berrikuspen sistematikoaren arabera, pornografiaren kontsumo erregularrak nerabe eta gazteen sexuarekiko jarrerak alda ditzake. **Gaitasun kritikoaren gabeziaren ondorioz**, pornografiaren industriaren atzean dauden interes ekonomikoak alde batera utzi, eta **pornografia eta sexua sinonimotzat hartzeko joera izan dezakete**. Bestalde, Bischmann et al.-ek (2017) ondorioztatu dute haur batek pornografiarekin duen lehen esposizioa bizitza osoan iraun dezaketen jarrera sexista jakin batzuekin erlazionatu daitekeela.

Ildo horretan, soilik gizonek osatutako lagin batekin egindako ikerketa batek ondorioztatu zuen pornografiaren kontsumoak eragina duela mutil heterosexualengan, bereziki genero-rolen pertzepzioari dagokionez. Halaber, beste ikerketa batek ondorioztatu zuen esposizio goiztiarrak emakumeekiko boterea izateko joera areagotzen duela. Norabide berean, nazioarteko beste ikerketa batzuek ondorioztatu dute esposizioa zenbat eta goiztiarragoa izan, orduan eta handiagoa izan daitekeela autoestimuan eta helduaroko ohitura sexualetan duen eragina (Attwood et al., 2018). Save the Children-ek (2020) argitaratutako txosten baten arabera, **nerabe askok pornografia bortitza dela aitortu zuten, eta %54k adierazi zuten beren sexu-esperientzietan eragina izan zuela**. Ildo horretan, Stanley et al.-ek (2018) ondorioztatu zuten bikotekidearen aurkako portaera hertsatzaileak edo sexu-abusuak gauzatzen dituzten mutilek maiztasun handiagoz kontsumitzen dituztela eduki pornografikoak. Testuinguru honetan, arrisku nagusietako bat eredu-moldaketarena da; izan ere, nerabe eta gazteek ikusitako **sexu-jokabide erasotzaileak normalizatu**, barneratu eta ondoren beren harremanetan **erreproduzitzeko joera** izan dezakete.




Ildo horretan, ikerketa askok **online pornografia kontsumoaren eta sexu indarkeraren arteko harremana goraipatu** dute (Malamuth et al., 2021; Tomaszewska eta Krahé, 2018; Ybarra et al., 2011; Ybarra eta Thompson, 2018; Wright et al., 2015), lotura hori handiagoa izanik pornografia bortitza denean (Wright et al., 2015). Aipatutako sexu-indarkeria, online ere aurrera eramán daiteke, Internet edo telefono mugikorraren bidez, nahi ez den sexu-lankidetzeta edo kontaktua lortzeko —adibidez, sexu-informazioa partekatzea, eduki sexualeko irudiak bidaltzea edo biktimaren nahien aurkako zerbait egitea— edo/eta biktimaren borondatearen aurka, bere irudiak zein informazioa Internetaren bidez zabaldu eta partekatzeko.

Ikerketek agerian utzi dute **lotura esanguratsua** dagoela **pornografia kontsumoaren eta sexting-aren artean**: zenbat eta eduki pornografiko gehiago kontsumitu, orduan eta aukera gehiago sexting-a aurrera eramateko (Rodríguez-Castro et al., 2021). Stanley et al. (2018), europako bost herrialdeetako nerabeekin egindako ikerketan, harreman estu hori berretsi dute. Are gehiago, Romito eta Beltraminik (2015) proposatzen dute sexting-a nerabeek beren eduki pornografikoak ekoizteko eta beste pertsona batzuei bidaltzeko bide gisa uler daitekeela.

Hainbat ikerketek zehazten dute **pornografiaren kontsumoak ondorio kaltegarriak izan ditzakeela maila pertsonal, sozial zein familiarrean**. Argudio kritikoen falta medio, pornografiaren industriaren atzean dauden interes ekonomikoak ahaztu eta ondorioz, pornografia eta sexua sinonimotzat hartu egiten dituzte.

Beraz, **pornografiaren kontsumoak nerabeen errealitatearen desitxuratzea dakar**, besteak beste. Gazteek ez dituzte behar beste baliabide pornografiak luzatzen dituen mezuak deskodetzeko, hortaz, honen kontsumoak haien garapen fisiko, mental eta moralean eragina dauka. Beraz, gizarte- eta hezkuntza-esparruetatik zein esparru psikologikoetatik, **ezinbestekoa da errealitate horren inguruko kontzientzia kritikoa garatzea** eta pornografiaren kontsumoaren oinarrian dauden faktoreetan sakonduko duten ikerketak sustatzea.


Horiek horrela, ikerketaren helburua Arabako nerabe eta gazteen online pornografiaren kontsumoaren zeharkako azterketa bat egitea da, baita kontsumoarekin bat egiten duten aldagaiak identifikatzea ere. Ikerketan Arabako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek parte hartu dute.



PARTE-HARTZAILEAK

Ikerketa Arabako 14 eskoletako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleekin aurrera eraman zen.

Guztira, **12 eta 17 urte bitarteko 1.413 ikaslek parte hartu zuten**. Probintziako hirigune zein landa-guneetan banatutako eskola publikoek zein kontzertatuek parte hartu zuten, Arabako ikasleen lagin anitza eta adierazgarria bermatuz.



1. taulan ikastetxe motaren arabera banaketa ikus daiteke.

Taula 1

Eskola motaren arabera banaketa


Eskola mota	Eskola kopurua	Guztizkoaren %, gutxi gorabehera	Ezaugarri orokorrak
DBHko eta Batxilergoko eskola publikoak	7	≈ %50	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen duten jabetza publikoko eskolak.
DBHko eta Batxilergoko eskola kontzertatu edo pribatuak	2	≈ %14	Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta, kasu batzuetan, Batxilergoa ematen duten itunpeko eskolak edo pribatuak.
Lanbide Heziketako eskola publikoak	1	≈ %7	Oinarrizko eta erdi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten jabetza publikoko zentroak.
Lanbide Heziketako ikastetxe kontzertatu edo pribatuak	4	≈ %29	Oinarrizko eta erdi-mailako heziketa-zikloak ematen dituzten jabetza kontzertatu edo pribatuko zentroak.

Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta.

Ikerketan 660 mutil (%47), 734 neska (%52) eta 19 ikasle ez-binariok (%) parte hartu zuten (ikus 1. irudia)

1. irudia

Laginaren banaketa generoa aintzat hartuta



Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

Ondoren, 2. taulan, ikasleen maila akademikoa ikusi daiteke, baita maila bakoitzeko maiztasuna ere.

Taula 2

Ikasleen banaketa ikasturtearen arabera

Maila akademikoa	Maiztasuna (%)
DBH 1. maila	%3,3
DBH 2. maila	%4,3
DBH 3. maila	%38,6
DBH 4. maila	%22,5
Batxilergo 1. maila	%18,1
Batxilergo 2. maila	%5
Oinarrizko heziketa zikloa	%7,2
Goi mailako heziketa zikloa	%1

Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

Modu berean, 1.222 parte-hartzailek (%86,5) nazionalitate espainiarra dute, eta gainerako 191 (%13,5) nazionalitate ezberdinetakoak dira, esaterako, Nigeria, Maroko, Kolonbia, Brasil, India, Austria, Errumania eta Mauritania.

TRESNAK

Ikerketak hurrengo galdetegiak barne hartu ditu:

- **Ad hoc galdetegia**, datu sozio-demografikoei buruzko informazioa biltzeko: generoa, adina, sexu-orientazioa, nazionalitatea, bizilekua eta hezkuntza-maila.
- **Hezkuntza afektibo-sexualari eta pornografia kontsumoari** buruzko *ad hoc* galdetegia. Alde batetik, hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko informazioa jasotzeko *ad-hoc* galdetegia (6 item). Beste alde batetik, Ballester et al.-en (2019) galdetegia kontuan hartuta, online pornografia kontsumoaren inguruko *ad-hoc* galdetegia (12 item).
- **Sexting galdetegia** (Gámez-Guadix et al., 2015), azken urtean nerabeek online eduki sexuala zein maiztasunekin partekatu zuten ebaluatzeko. Nerabeek hiru itemetan adierazi behar dute zenbat aldiz egin dituzten honako ekintzak beren borondatez: (a) “zuri buruzko idatzizko informazioa edo eduki sexuala duten testu-mezuak bidali”; (b) “eduki sexuala duten argazkiak bidali (biluzik, adibidez)”, edo (c) “zuri buruzko irudiak (adibidez, webcam baten bidez) edo eduki sexuala duten bideoak bidali”. Erantzun-eskala hau da: 0 = inoiz ez, 1 = 1-3 aldiz, 2 = 4-10 aldiz, eta 3 = 10 aldiz baino gehiago azken urtean. Azterketa honetan eskalak propietate psikometriko onak erakutsi ditu (Cronbach-en alpha = .791).
- **Sexu online biktimizazioa**. Parte-hartzaileak haien azken urteko esperientzia kontuan hartuta, 12 item erantzun behar dituzte: 0 = inoiz ez eta 3 = ia beti edo beti item (adibidez: “heldu ezezagunek, nirekin ligatzeko asmoz, mezu-idatziak bidali dizkirate sare sozialen bidez”). Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko egokiak izan ditu, non, Cronbach alpha = .904 den.
- **Interneko arriskuak**. Interneten zehar nabigatzearen arriskuak barne hartzen dituzten egoera desberdinak plazaratzen zaizkie (adibidez, “Interneten bidez ezagutu dudana pertsona batekin geratu” 10 item medio. Erantzuteko bost aukera posible daude: 1 = Ez zait bat ere arriskutsua iruditzen eta 5 = Oso arriskutsua iruditzen zait. Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko egokiak izan ditu, non, Cronbach alpha = .798 den.

- **Basic Emphy Scale** (BES; Jolliffe eta Farrington, 2006) bere gaztelaniazko bertsioan (Villadangos et al., 2016). Galdetegi honek enpatia emozionala eta enpatia kognitiboa neurtzen ditu 20 item medio (adibidez: “normalean ez naiz nire lagunen emozioez ohartzen”). Erantzuteko bost aukera posible daude (1 = guztiz desados eta 5 = guztiz ados). Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko egokiak izan ditu (Cronbachen alpha = .817).
- **Adimen Emozionalaren Eskala** (WLEIS; Wong eta Law, 2002) bere bertsio espainiarrean (WLEIS-S; Pacheco et al., 2019). Eskala 16 itemez osatuta dago, eta hauek 7 puntuko Likert eskala bat medio erantzuten dira (1 = guztiz desados eta 7 = guztiz ados). Itemak hurrengo 4 azpieskala edo faktoretan banatzen dira: Norberaren emozioak baloratu eta adieraztea; Besteen emozioak baloratu eta onartzea; Norberaren emozioak erregulatzea; Emozioak kontrolatzea. Azterketa honetan eskalak propietate psikometriko onak erakutsi ditu (Cronbachen alpha = .890).
- **Gizarte-babesaren dimentsio anitzeko eskala** (Zimet et al., 1988), gaztelaniazko bertsioan (Landeta eta Calvete, 2002). 12 item-eko (adibidez: “nire bizitzan nire emozioez arduratzen den pertsona esanguratsu bat dago”) galdetegi honek hurrengo hiru dimentsioak barne hartzen ditu: senide, lagun zein beste pertsona esanguratsuenagandik jasotako babesaren pertzepzioa. Erantzuteko 7 aukera posible dituzte (1 = guztiz desados eta 7 = erabat ados). Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko onak aurkeztu ditu, non (Cronbachen alpha = .930).
- **Sexismo Anbibalentearen Inbentarioa** (IJT-Nerabeak, Glick eta Fiske, 1996; Lemus et al., 2008ren egokitzapena). Galdetegi honek etsaitasun sexismoa eta sexismo onbera neurtzen ditu 20 item (adibidez: “Mutilak neskak baino indartsuagoak dira”) medio. Ikerlan honetan eskala honek propietate psikometriko onak aurkeztu ditu (Cronbachen alpha = .920).




ONLINE PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA ETA HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA

Lagin osoaren **%47,3k adierazi du noizbait pornografia kontsumitu duela**; horien artean, %67,5 mutilak dira eta %32,5 (n = 59) neskak (ikus 2. irudia).

2. irudia

Pornografiaren kontsumoa sexua kontuan hartuta

Noizbait pornografia kontsumitu duzu?



Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta


lido berean, noizbait pornografia kontsumitu dutenei gaur egun pornografia kontsumitzen jarraitzen duten galdetu zaie. Kasu honetan, pornografia noizbait kontsumitu duten **ikasleen %44k adierazi du kontsumitzen jarraitzen duela**; horien artean, %80,3 mutilak dira eta %19,7 neskak (ikus 3. irudia).



3. irudia

Pornografiaren gaur egungo kontsumoa sexuaren arabera

Gaur egun online pornografia ikusten duzu?




Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

Era berean, aurreko bi galderen analisia egin da —noizbait onlineko pornografia kontsumitzea eta gaur egungo kontsumoa— parte-hartzaile adingabeen adina kontuan hartuta. Horretarako, ikasleak bi taldetan banatu dira, Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera nerabezaroaren lehenengo bi etapekin bat datozen adin-tarteen arabera, Neinstein (1991) eta Brañasen (1997) proposamenak aintzat hartuta: 12-14 urte eta 15-17 urte. Emaitzek agerian uzten dute bi taldeen artean aldeak daudela online pornografia kontsumoari dagokionez. Ehunekotan, 12 eta 14 urte bitarteko parte-hartzaileen %35,5ek adierazi du pornografia noizbait kontsumitu duela; 15 eta 17 urte bitarteko taldean, berriz, % 52,80ra arte igo da ehuneko hori. (ikus 4. irudia).

4. irudia

Pornografiaren kontsumoa adin-tarteen arabera



Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

Halaber, pornografiaren gaur egungo kontsumoa aztertu da, bi adin-tarteetan bereizita (12-14 urte eta 15-17 urte). Emaitzek bi adin-tarteetan artean desberdintasun esanguratsuak daudela plazaratu dute, izan ere, 12 eta 14 urte bitarteko parte-hartzaileen %19,2ak gaur egun (galdetegia bete zuten unean) pornografia kontsumitzen duela adierazi du eta aldiz, 15 eta 17 urte bitartekoen %80,8ak. Kasu honetan, **pornografia kontsumitu izanaren ehunekoak adinarekin gora doa.**

Adinari dagokionez, **eduki pornografikoak lehen aldiz ikusi zuten parte-hartzaileen gutxieneko adina 6 urte izan dira, eta gehiengoa aldiz, 17 urte.** Kasu honetan, batezbestekoa 12 urte inguru izan da. Halaber, "Zenbat urterekin hasi zinen pornografia normaltasunez kontsumitzen?" galderaren erantzunak bide berean doaz, izan ere, gutxieneko adina 7 urte izan dira, eta aldiz, gehiengoa 17 urte (batezbestekoa 13 urte inguru). Testuinguru honetan, pornografia noizbait kontsumitu zutenen **%64,9k lehen aldiz zeharkako modu batean aurkitu** zuela aipatzekoa da, zera da, ez zuten zuzenean bilatu.

Ikasturtearen arabera ere desberdintasunak hauteman ziren. DBHko lehenengo mailako ikasleen artean, %23,9k adierazi du noizbait pornografia kontsumitu duela. **Ehunekoak, progresiboki, ikusturtez ikasturte, gora egiten du:** DBH bigarren mailako %37,7a, DBH hirugarren mailako %39,4 eta DBH laugarren mailako %47,5a. Batxilergoko ikasleen artean, kontsumoak gora egiten du, izan ere, batxilergo lehenengo mailako ikasleen %53,9ak noizbait pornografia kontsumitu du eta aldiz, bigarren mailako %72,9ak. Azkenik, Lanbide Heziketan, Oinarrizko Graduko ikasleen %71,6k eta Erdi Mailako ikasleen %57,1ek adierazi du noizbait online pornografia kontsumitu dutela.

Pornografia kontsumitzen dutela adierazi duten nerabeei kontsumoaren arrazoiak zehazteko eskatu zaie. Jasotako 295 erantzunen artean, **%74,9k masturbatzeko adierazi du**, %8,8k jakin-minagatik, %7,8k erlaxatzeko, %6,1ek sexuari buruz ikasteko, %1ek bikotekideari bidaltzeko, %0,7k lagunaren eraginez, %0,3k bikotekidearekin ikusteko eta beste %0,3k asperduragatik.

Gainera, 3. taulan, ikasleek online pornografia kontsumitzeko maiztasunaren inguruan emandako erantzunak azaltzen dira.

Taula 3*Pornografia kontsumitzeko maiztasuna*

	Erantzun kopurua	Ehunekoak (%)
Hilabetean behin baino gutxiago	304	47.6
Hilabetean behin eta hiru aldiz bitartean	115	18
Astean behin	77	12.1
Astean bi eta sei aldiz bitartean	95	14.9
Egunero	34	5.3
Egunean behin baino gehiagotan	14	2.2

Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

Beste alde batetik, pornografia non eta norekin kontsumitzen duten aztertu da, erantzun desberdinak hautatzeko aukera emanez.

Parte-hartzaile gehienek adierazi dute etxean (%91,7) eta bakarrik (%91ak) kontsumitzen dutela. Era berean, eduki pornografikoetara sartzeko erabiltzen dituzten bitartekoen inguruan ere galdetu zaie, erantzuteko aukera desberdinak emanez. Kasu honetan, %78,6k adierazi du eduki pornografikoak webgune zehatz batzuen bidez kontsumitzen dituztela.

Hezkuntza afektibo-sexualaren garrantzia aintzat hartuta, ikasleei jasotako formakuntzaren inguruan galdetu zaie.

Horiek horrela, **ikaslearen gehiengoak (%83,3ak), noizbait, formakuntza jaso duela adierazi du.**

Ikasle horien ia erdiak (%47,5) formakuntzak haien zalantzak eta interesak asetu zituela adierazi dute. %43ak aldiz, neurri batean baino ez zituztela zalantzak argitu adierazi dute, era %9.5ak formakuntzak haien zalantzak ez zituela erantzun adierazi du.

Halaber, 4. taulan ikasleek formakuntzaren iraupenari buruz emandako erantzunak jasotzen dira.

Taula 4*Jasotako formakuntzaren iraupena*

	Erantzun kopurua	Ehunekoak (%)
Saio bat	127	10.8
Bi saio	214	18.2
Hiru saio	287	24.4
Lau saio edo gehiago	549	46.6

Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

lido berean, formakuntza non jaso zuten galdetu zaie, eta aukera anitzeko galdera horren erantzunak hurrengoak dira (ikus, 5. taula):

Azkenik, **ikasleen %10,2k adierazi du sexualitateari inguruan zerbait ikasi duen influencer edo youtuberren bat jarraitzen duela.** Horien artean Jose Angel erizaina (%23,2) eta Mosto Papi TV (%13,7) aipatzekoak dira.

Taula 5

Formakuntza non jaso zuten (erantzun anitzeko galdera)

	Erantzun kopurua	Ehunekoak (%)
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan	1013	86.1
Etxean, guraso edo tutoreak medio	293	24.9
Lehen Hezkuntzan	507	43.1
Lagunekin	235	20
Sare sozialetan	135	11.5
Beste pertsona heldu batzuekin	98	8.3
Internet-en	89	7.6
Etxean, beste senide batzuen aldetik	40	3.4
Liburuetan	3	.3
Telebistan	2	.2
Batxilergoan	1	.1

Iturria: Guk sortua ikerketaren emaitzak oinarri hartuta

EMAITZAK

SEXTING-A

Sexting-ak, sexua oinarri duten testuak, irudiak zein bideoak, Internetaren bidez bidali, jaso edo birbidaltzearekin bat egiten du. Ikerketaren helburuetako bat nerabeen online pornografiaren kontsumoa sexting-arekin erlazionatuta dagoen aztertzea da.



Ondorioz, sexting galdetegiaren emaitzen eta online pornografia kontsumoaren arteko erlazioa aztertu da eta erlazio esanguratsua aurkitu da sexting galdetegiaren emaitza eta pornografiaren kontsumoaren artean (noizbait kontsumitu eta inoiz kontsumitu ez duten ikasleen artea). Noizbait online pornografia kontsumitu duten ikasleek sexting galdetegian puntuazio altuagoa lortu dute inoiz kontsumitu ez dutenekin alderatuta. Emaitzek agerian uzten dute **online pornografia kontsumitzen duten pertsonak zailtasun gehiago izan ohi dituztela eduki sexuala oinarri duten testu, irudi zein bideoak partekatzearen arriskuak identifikatzeko.**

Taula 6

Sexting galdetegiaren erantzunak

Itemak	Inoiz ez	Maiztasuna		
		1 eta 3 aldiz	4 eta 10 aldiz	10 aldiz baino gehiago
1. Zure gorputza oinarri duten argazki sexualak bidali, adibidez, biluzik.	%88.1 (1245)	%7.4 (104)	%2.8 (40)	%1.7 (24)
2. Zure gorputza oinarri duten bideo sexualak bidali.	%95.1% (1344)	%2.9 (41)	%1.1 (16)	%0.8 (12)
3. Zure gorputza oinarri duten idatzizko testu sexualak bidali	%81.6% (1153)	%10 (142)	%5.1 (72)	%3.3 (46)

Iturria: Gámez-Guadix et al. (2015) sexting galdetegiaren item-ak

EMAITZAK

SEXU ONLINE BIKTIMIZAZIOA

Sexu online biktimizazioa online pornografia kontsumoarekin erlazionatzen den aztertu zen. Alde batetik, esanguratsuak diren desberdintasunak aurkitu dira sexu online biktimizazioaren eskalan sexuaren arabera. **Neskak**, mutilekin alderatuta, **azken 12 hilabeetan online sexu-biktimizazioa barne hartzen duten esperientzia gehiago bizi izan dituzte.**

Beste alde batetik, desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira sexu online biktimizazioaren eskalaren batezbestekoan noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta ez dutenen artean. Horiek horrela, noizbait **online pornografia kontsumitu duten horiek**, inoiz kontsumitu ez duten ikasleekin alderatuta, **sexu online biktimizazioa oinarri duten esperientzia gehiago** (ikus, 7. taula) **bizi izan dituzte azken 12 hilabeteetan.**

Taula 7

Sexu online biktimizazioaren inguruko item-en erantzunak

Itemak	Maiztasuna			Ia beti / beti
	Inoiz ez	Gutxitan	Askotan	
1. Heldu ezezagunek, nirekin ligatzeko asmoz, mezu-idatziak bidali dizkirate sare sozialen bidez.	%61.6 (870)	%23 (325)	%11.3 (159)	%4.2 (59)
2. Adinez nagusia den pertsona bat, nirekin ligatzeko asmoz, adinez txikiko pertsona dela jakinarazi dit.	%88.2 (1246)	%7.7 (109)	%2.9 (41)	%1.2 (17)
3. Pertsona heldu bat, Internet medio, ni liluratzen saiatu da.	%79.8 (1128)	%11 (155)	%6.1 (86)	%3.1 (44)
4. Pertsona heldu bat, Interneta medio eta ni liluratzeko asmoz, opari materialak erabili ditu (kontzertuetarako sarrerak...).	%92.5 (1307)	%4.6 (65)	%2.1 (29)	%.8 (12)
5. Pertsona heldu bat sexua oinarri duten mezu, telefono dei, korreo eta abarren bidez jazarri nau.	%91.6 (1294)	%5.7 (81)	%1.6 (23)	%1.1 (15)
6. Norbait nire irudi zein bideoak, jarrera "sexy" edo probokatzailarekin, bidaltzeko presionatu nau (behin eta berriz errepikatu).	%85.1 (1203)	%9.1 (128)	%3.8 (53)	%2.1 (29)
7. Norbait nire gorputzaren atal intimoren bat irudi zein bideo bidez erakusteko presionatu nau (behin eta berriz errepikatu).	%85.6 (1210)	%8.8 (125)	%3.8 (53)	%1.8 (25)
8. Norbait Interneten bidez sexuaren inguruan hitz egiteko presionatu nau (behin eta berriz errepikatu).	%87.6 (1238)	%7.8 (110)	%3 (43)	%1.6 (22)
9. Norbait nire buruaren irudi zein bideoak, jarrera "sexy" edo probokatzailarekin, bidaltzeko mehatxatu edo xantaiatu nau.	%94.6 (1337)	%3.5 (50)	%1 (14)	%.8 (12)
10. Norbait nire gorputzaren atal intimoren bat irudi zein bideo bidez erakusteko mehatxatu edo xantaiatu nau.	%94.3 (1332)	%4 (56)	%1.1 (16)	%.6 (9)
11. Norbait Interneten bidez sexuaren inguruan hitz egiteko mehatxatu edo xantaiatu nau (behin eta berriz errepikatu).	%93.9 (1327)	%4.3 (61)	%1.1 (16)	%.6 (9)
12. Norbait, zerbait lortzeko asmoz (adibidez dirua), nire irudi zein bideo konprometituak zabaltzearekin mehatxatu nau.	%97.3 (1375)	%1.7 (24)	%.6 (8)	%.4 (6)

Iturria: Montiel eta Carbonell (2012), Guerra et al.-ek (2020) balidatuta, sexu online biktimizazioaren galdetiko item-ak

INTERNET-EN ARRISKUAK

Hurrengo galdetegia ikasleek Interneten zehar nabigatzearen egoera desberdinen arrisku-maila nola hautematen zuten aztertzeko baliagarria izan da. Alde batetik, sexuaren arabera desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira; **neskak, mutilekin alderatuta, Interneten zehar nabigatzearen arriskuen kontzientzia gehiago dute.**

lido beretik, noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta ez dutenen artean ere ezberdintasunak aurkitu dira. **Noizbait pornografia kontsumitu duten nerabeek Interneten arriskuak neurri txikiagoan hautematen dituzte,** inoiz pornografia kontsumitu ez duten nerabeekin alderatuta. 8. taulan galdetegiaren erantzunak ikusi ahal dira.

Taula 8

Interneten hautemandako jokabideen arriskuari buruzko itemen erantzunak

Itemak	Maiztasuna				
	Ez da arriskutsua	Arrisku gutxikoa	Arriskutsua	Oso arriskutsua	Erabat arriskutsua
1. Nire lagun minak nire sare sozial baten pasahitza ezagutu (Instagram, TikTok...).	%29.8 (421)	%37.9 (535)	%19.7 (279)	%7.3 (103)	%5.3 (75)
2. Internet bidez ezagutu dudana pertsona batekin ni bakarrik geratu.	%7.9 (112)	%12.5 (177)	%30.1 (425)	%25.8 (364)	%23.7 (335)
3. Geolokalizazioa duen argazki bat partekatu.	%12 (169)	%22 (311)	%30.5 (431)	%20 (282)	%15.6 (220)
4. Sare sozialetan profila irekita/publikoa izan (Instagram, TikTok...).	%16.9 (239)	%33.5 (474)	%31.3 (442)	%12 (169)	%6.3 (89)
5. Sare sozial zein jolas plataformetan pertsona ezezagun baten eskaera onartu.	%21.3 (301)	%38.1 (538)	%25.5 (360)	%9.5 (134)	%5.7 (80)
6. Argazki pribatuak sare sozialen bidez partekatu.	%7.9 (111)	%13.3 (188)	%20.8 (294)	%26.9 (380)	%31.1 (440)
7. Lagunen argazkietan etiketuta izatea.	%58 (820)	%28.9 (409)	%8.8 (124)	%2.5 (36)	%1.7 (24)
8. Eduki sexuala oinarri (adibidez erdi biluzik) duen argazki zein bideo bat gustuko dudana ikaskide batekin partekatu.	%5.7 (81)	%2.5 (35)	%6.2 (88)	%20.9 (295)	%64.7 (914)
9. Eduki sexuala oinarri (adibidez erdi biluzik) duen argazki zein bideo bat nire bikotekidearekin partekatu.	%8.8 (124)	%11.4 (161)	%18.3 (259)	%27.2 (384)	%34.3 (485)
10. Eduki sexuala oinarri (adibidez erdi biluzik) duen argazki zein bideo bat Internetetik ezagutu dudana pertsona batekin partekatu.	%4.9 (69)	%1.1 (15)	%2.5 (36)	%8.1 (114)	%83.4 (1179)

Iturria: PSIDES ikerketa taldearen "Interneten zehar nabigatzearen arriskuak" galdetegiko item-ak

ENPATIA

Parte-hartzaileen enpatia emozionala zein kognitiboa neurtu zen. Enpatia emozionala beste pertsona batek sentitzen ari duena sentitzeko gaitasuna adierazten du eta enpatia kognitiboak aldiz, beste pertsona baten emozioak ulertzeko gaitasunarekin bat egiten du.

Emaitzen arabera, sexuaren araberako desberdintasun esanguratsuak antzeman dira enpatia emozionalean: mutilek enpatia emozional maila baxuagoak erakutsi dute neskekin alderatuta. Era berean, noizbait eduki pornografikoa kontsumitu duten eta kontsumitu ez duten ikasleen artean desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira enpatia emozionalean. **Pornografia sekula kontsumitu ez duten nerabeek enpatia emozional maila altuagoa erakutsi dute noizbait kontsumitu dutenekin alderatuta.**

Enpatia kognitiboari dagokionez, desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira sexuaren arabera: mutilek enpatia kognitiboaren maila baxuagoak erakutsi dute neskekin alderatuta. Era berean, noizbait eduki pornografikoa kontsumitu duten ikasleen eta kontsumitu ez dutenen artean alde nabarmenak aurkitu dira. **Pornografia inoiz kontsumitu ez duten nerabeek inoiz kontsumitu dutenek baino enpatia kognitibo maila altuagoak aurkeztu dute.**



ADIMEN EMOZIONALA

Ikerketa honetan, aztertutako beste aldagaia esanguratsu bat adimen emozionala izan da, hau da, norberaren eta besteen emozioak identifikatu, ulertu eta kudeatzeko gaitasuna. Adimen emozionala gure **emozioez kontzite izatea dakar, emozioak modu egokian adierazi eta erregulatu ahal izateko**. Halaber, gainerako pertsonen sentimenduak ulertzeko trebetasuna ere barne hartzen du. Horiek horrela, ikerketaren emaitzek agerian utzi dute sexua kontuan hartuta, alde nabarmena dagoela adimen emozionalaren azpieskala guztietan:

- “Norberaren emozioen ebaluazioa” izena duen azpieskalan (norberaren emozioak identifikatu eta ulertzeko gaitasuna) desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira, izan ere, mutilek neskek baino gaitasun gehiago adierazi dute norberaren emozioak identifikatu eta ulertzeko.
- “Besteen emozioen ebaluazioa” azpieskalan desberdintasun esanguratsuak atzeman dira sexuaren arabera, izan ere, neskek, mutilekin alderatuta, besteen emozioak identifikatzeko gaitasun gehiago erakutsi dute.

- “Emozioen erabilera” azpieskalan, desberdintasun esanguratsuak atzeman dira sexuaren arabera: mutilek, neskekin alderatuta, emozioak motibazio pertsonalerako baliabide gisa erabiltzeko gaitasun handiagoa erakutsi dute.
- “Emozioen erregulazioa” azpieskalan desberdintasun esanguratsuak atzeman ziren sexuaren arabera: mutilek neskek baino gaitasun handiagoa erakutsi dute emozioak modu eraginkorrean kontrolatzeko.
- Hala ere, noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta inoiz kontsumitu ez dutenen artean desberdintasun esanguratsuak “besteen emozioen ebaluazioa” azpieskalan soilik atzeman dira. Pornografia noizbait kontsumitu dutenek pertzepzio interpertsonal baxuagoa erakutsi dute, inoiz kontsumitu ez dutenekin alderatuta.



EMAITZAK

GIZARTE-BABESA

Parte hartu zuten ikasleen gizarte-babesa aztertu da, eta haien **familiaren, lagunen eta beste pertsona esanguratsu batzuen aldetik jasotzen zuten babesari buruzko pertzepzioa ebaluatu da**. Sexuaren arabera, alde nabarmenak atzeman dira lagunen eta pertsona esanguratsuen babesari dagokionez: neskek gizarte-babes handiagoa hautematen dute lagun eta pertsona esanguratsuen aldetik, mutilek baino.

Aldiz, sexuaren arabera ez dira desberdintasun esanguratsurik atzeman familiaren aldetik hautemandako gizarte-babesari dagokionez.

Online **pornografiaren kontsumoari dagokionez, desberdintasun nabarmenak atzeman dira** noizbait pornografia kontsumitu dutenen eta inoiz kontsumitu ez dutenen artean, galdetegiaren **hiru eskaletan**.

Lehenik eta behin, desberdintasun esanguratsuak atzeman dira lagunen aldetik hautemandako gizarte-babesean: noizbait pornografia kontsumitu duten pertsonak, inoiz kontsumitu ez dutenekin alderatuta, lagunen babes txikiagoa hautematen dute.

Bigarrenik, alde nabarmenak aurkitu dira familiaren aldetik hautemandako gizarte-babesaren azpieskalan ere. Noizbait pornografia kontsumitu dutenek gizarte-babes txikiagoa hautematen dute familien aldetik, inoiz kontsumitu ez zutenek baino.

Azkenik, desberdintasun nabarmenak atzeman dira pertsona esanguratsuen aldetik hautemandako gizarte-babesari dagokionez. Noizbait pornografia kontsumitu duten pertsonak pertsona esanguratsuen babes txikiagoa hautematen dute, inoiz pornografiarik kontsumitu ez dutenekin alderatuta.



SEXISMOA

Sexismoa emakumeek jasotzen duten tratuan desberdintasuna eta hierarkizazioa bultzatu zein betikotzen duten jarrerak dira. Sexismo antibalentearen teoria, generoaren analisi psikosozialaren erreferente nagusietako bat da. Sexismo antibalenteak emakumeekiko jarrera eta portaera diskriminatzaileak barne hartzen ditu. Sexismo antibalentearen teoriaren egileentzat, sexismoak aurkako osagaia (etsaitasun sexismoa) izateaz gainera (sexismoa bera halakotzat hartu egiten du), osagai onbera (sexismo onbera) ere badu.

- **Etsaitasun sexismoa:** Emakumeenganako jarrera erabat negatiboak eta aurreiritziak barne hartzen ditu. Sexismo mota hau emakumeen gutxiagotasunaren eta genero-desberdintasunaren ideian oinarritzen da, eta hainbat esparrutan gizonen nagusitasuna justifikatzen du.
- **Sexismo onbera:** Estereotipo edo sinesmen positiboak barne hartzen ditu. Etsaitasun sexismoak ez bezala, kutsu afektibo edo positiboa du. Emakumeak balioesten edo babesten dituela ematen badu ere, genero-rol tradizionaletara mugatzen da eta desberdintasunak betikotzen laguntzen du.

Jarrera sexistei dagokienez, galdetegiaren bi azpieskala nagusiei erreparatu zaie (etsaitasun sexismoa eta sexismo onbera) eta sexuari dagokionez, bietan desberdintasun esangutsuak antzeman dira. Horiek horrela, **neskek mutilek baino maila baxuagoa aurkeztu dute etsaitasun sexismo zein sexismo onberaren eskalan.**

Azkenik, noizbait pornografia kontsumitu zuten eta ez dutenen artean desberdintasun esanguratsuak aurkitu dira sexismo onbera eta etsaitasunaren eskaletako batezbestekoetan. Horiek horrela, **noizbait pornografia kontsumitu duten ikasleek maila altuagoa dute sexismo onberaren zein etsaitasun sexismoaren** batezbestekoan, pornografia inoiz kontsumitu ez zutenekin alderatuta.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Atienza, F. L., Pons, D., Balaguer, I., eta García-Merita, M. (2000). Propiedades psicométricas de la Escala de Satisfacción con la Vida en adolescentes. *Psicothema*, 12(2), 314-319.
- Attwood, F., Smith, C., eta Barker, M. (2018). "I'm just curious and still exploring myself": Young people and pornography. *New Media and Society*, 20(10), 3738-3759.
- Ballester, L., Orte, C., eta Pozo, R. (2019). Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales de adolescentes y jóvenes. *Vulnerabilidad y Resistencia: Experiencias investigadoras en comercio sexual y prostitución*, 249-284.
- Ballester, R., Castro, J., Gil, M. D., eta Giménez, C. (2020). *Adicción al cibersexo: teoría, evaluación y tratamiento*. Alianza Editorial.
- Bischmann, A., Richardson, C., Diener, J., Gullickson, M., Davidson, M., eta Gervais, S. (2017, August). Age and experience of first exposure to pornography, relations to masculine norms. In *Poster presented at the annual American Psychological Association convention*.
- Brañas, P. (1997). Atención del pediatra al adolescente. *Pediatría Integral*, 2, 207-216.
- Gámez-Guadix, M., Almendros, C., Borrajo, E., eta Calvete, E. (2015). Prevalence and association of sexting and online sexual victimization among Spanish adults. *Sexuality Research and Social Policy*, 12, 145-154.
- Gámez-Guadix, M., Mateos-Pérez, E., Wachs, S., Wright, M., Martínez, J., eta Íncera, D. (2022). Assessing image-based sexual abuse: Measurement, prevalence, and temporal stability of sextortion and non consensual sexting ("revenge porn") among adolescents. *Journal of Adolescence*, 94, 789–799. <https://doi.org/10.1002/jad.12064>
- Garaigordobil, M., eta Aliri, J. (2011). Sexismo hostil y benevolente: relaciones con el autoconcepto, el racismo y la sensibilidad intercultural. *Revista de Psicodidáctica*, 16(2).
- Glick, P., eta Fiske, S. T. (1996). The ambivalent sexism inventory: Differentiating hostile and benevolent sexism. *Journal of personality and social psychology*, 70(3), 491.
- Guerra, C., Montiel, I., Pereda, N., eta Pinto-Cortez, C. (2020). Invarianza factorial de una escala breve para evaluar abuso sexual online en adolescentes de España y Chile. *Behavioral Psychology / Psicología Conductual*, 28(1), 95-113.
- Jolliffe, D., eta Farrington, D. P. (2006). Development and validation of the Basic Empathy Scale. *Journal of Adolescence*, 29(4), 589–611. <https://doi.org/10.1016/j.adolescence.2005.08.010>
- Landeta, O., eta Calvete, E. (2002). Adaptación y validación de la escala multidimensional de apoyo social percibido. *Ansiedad estrés*, 173-182.
- Lemus, S. D., Castillo, M., Moya Morales, M. C., Padilla, J. L., eta Ryan, E. (2008). Elaboración y validación del Inventario de Sexismo Ambivalente para Adolescentes. *International Journal of Clinical and Health Psychology*, 8(2), 537-56
- Malamuth, N.M., Lamade, R.V., Koss, M.P., Lopez, E., Seaman, C., eta Prentky, R. (2021). Factors predictive of sexual violence: Testing the four pillars of the Confluence Model in a large diverse sample of college men. *Aggressive Behavior*, 47(4), 405-420. <https://doi.org/10.1002/ab.21960>

- Montiel, I., eta Carbonell, E. (2012). Cuestionario de victimización juvenil mediante internet y/o teléfono móvil [Juvenile Online Victimization Questionnaire, JOV-Q] Patent number 09/2011/1982. Valencia: Registro Propiedad Intelectual Comunidad Valenciana.
- Moral J., eta Retamales R. (2000). Estudio de validación de la escala de alexitimia de Toronto (TAS-20) en muestra española. *Psiquiatría*, 4(2), 1-10.
- Neinstein, L. S. (1991) *Salud del Adolescente*. Prous Editores.
- Peter, J., eta Valkenburg, P.M. (2016). Adolescents and pornography: A review of 20 years of research. *The Journal of Sex Research*, 53(4-5), 509-531. <https://doi.org/10.1080/00224499.2016.1143441>
- Rodríguez-Castro, Y., Martínez-Román, R., Alonso-Ruido, P., Adá-Lameiras, A., eta Carrera-Fernández, M. V. (2021). Intimate partner cyberstalking, sexism, pornography, and sexting in adolescents: new challenges for sex education. *International Journal of Environmental Research and Public Health*, 18(4), 2181.
- Romito, P., eta Beltramini, L. (2015). Factors associated with exposure to violent or degrading pornography among high school students. *Journal of School Nursing*, 31(4), 280–290. <https://doi.org/10.1177/1059840514563313>
- Rosenberg, M. (1965). *Society and the adolescent self-image*. Princeton University Press.
- Save the Children. (2020). (Des)Información Sexual: Pornografía Y Adolescencia [Sexual Misinformation: Pornography and Adolescence]. 2020. Available online: https://www.savethechildren.es/sites/default/files/2020-09/Informe_Desinformacion_sexual-Pornografia_y_adolescencia.pdf
- Stanley, N., Barter, C., Wood, M., Aghtaie, N., Larkins, C., Lanau, A., eta Överlien, C. (2018). Pornography, sexual coercion and abuse and sexting in young people's intimate relationships: A European study. *Journal of Interpersonal Violence*, 33(19), 2919-2944.
- Tarrant, S. (2016). *The pornography industry: What everyone needs to know*. Oxford University Press.
- Tomaszewska, P., eta Krahe, B. (2018). "Predictors of sexual aggression victimization and perpetration among Polish university students: A longitudinal study." *Archives of Sexual Behavior* 47, 493-505.
- Wong, C., eta Law, K. S. (2002). The effects of leader and follower emotional intelligence on performance and attitude: An exploratory study. *Leadership Quarterly*, 13(3), 243-274. [https://doi.org/10.1016/S1048-9843\(02\)00099-1](https://doi.org/10.1016/S1048-9843(02)00099-1)
- Wright, P.J., Tokunaga, R.S., eta Kraus, A. (2015). A Meta-Analysis of Pornography Consumption and Actual Acts of Sexual Aggression in General Population Studies. *Journal of Communication*, 66(1), 183-205. <https://doi.org/10.1111/jcom.12201>
- Ybarra, M.L., eta Thompson, R.E. (2018). Predicting the Emergence of Sexual Violence in Adolescence. *Prevention Science*, 19(4), 403-415. <https://doi.org/10.1007/s1121-017-0810-4>
- Zimet, G.D., Dahlem, N.W., Zimet, S.G., eta Farley, G.K. (1988). The Multidimensional Scale of Perceived Social Support. *Journal of Personality Assessment*, 52, 30-41.

ONLINE PORNOGRAFIA KONTSUMITZEN DUTEN NERABEEN PROFILA

Nerabeek online pornografiarekin duten lehen harremana, oro har...



12,04 URTE

Parte-hartzaileen %64,9k pornografiarekin modu kasualean edo ustekabean topo egin zuela adierazi zuen.

Hala ere, online pornografiaren ohiko kontsumoaren hasierako batez besteko adina 13,38 urtekoa izan zen.

Nerabeen %47,3k adierazi du 17 urte bete aurretik noizbait online pornografia ikusi duela.


Horien artean...

%67.5 mutilak

eta

%32.5 neskak

Pornografiaren kontsumoa adin-tarteen arabera Noizbait pornografia kontsumitu duzu?



Gaur egun, %44k online pornografia kontsumitzen jarraitzen dute

Horietatik...

%80.3 mutilak

eta

%19.7 neskak

Online pornografia kontsumoarekin erlazionatutako faktoreak

1	Parte-hartze handiagoa sexting jokabideetan
2	Online sexu-biktimizazio maila handiagoa
3	Interneteko arriskuen pertzepzio gutxiagoa
4	Enpatia emozionalaren eta kognitiboaren maila baxuagoa
5	Etsaitasun sexismo zein sexismo onberaren maila altuagoak
6	Lagunen, familiaren eta inguruko pertsona esanguratsuen babesaren pertzepzio baxuagoa
7	Besteen emozioak identifikatzeko ahalmen baxuagoa



Euskal Herriko
Unibertsitatea



ONLINE PORNOGRAFIAREN KONTSUMOA ARABAKO ESKOLETAKO IKASLEEN ARTEAN

**PSIDES IKERKETA TALDEA
(UPV/EHU)**

**Garapenaren psikologia gizarte-
erronka berrien aurrean**

KONEXIO-ONA

**Hurtzarotan eta nerabezarotan
harreman osasuntsuak
sustatzeko elkarteak**

2026ko OTSAILA